



www.uzturpe.eus



Guraso agurgarriak:

2016-2017 ikasturtean **gure ikastolan KiVa programa** jarri genuen martxan. **KiVa** bullying edo eskola-jazarpenaren aurkako programa da.

**Prebentzio modura, ikasleek tutoretza saioetan jazarpenari aurre hartu eta haren kontra borrokatzeko bideak ikasiko dituzte:**

- Eztabaidak, talde lanak, eskola-jazarpenari buruzko film laburrak eta rol-jokoak.
- Errespetuaren garrantzia giza harremanetan edo taldeak jokatzen duen rola.
- Jazarpenari aurre egiteko moduak hausnartu eta praktikatu.

**KiVa taldeak eta tutoreek elkarrekin aurre egiten diete jazarpen-kasuei**

KiVa taldea dago ikastolan, 3 irakaslez osatua. Trebatuak izan dira gelako irakaslearekin batera KiVa programa nola ezarri eta jazarpen-kasuak nola kudeatu jakin dezaten.

**Zer egin dezakezue gurasoek?**

- Zure haurra jazarria izaten ari dela susmatzen baduzu, edo besteak jazartzen dituela uste izateko motiboren bat baduzu, mesedez jarri harremanetan ikastolarekin, auzia ahalik eta modu eraginkor eta azkarrenean bideratu ahal izateko!
- Jazarpenaren inguruan hitz egin etxean, baita jazarria ez bada edo besteei jazartzen ari ez bada ere.
- Garrantzitsua da zuk eta zure haurrak elkarrekin pentsatzea zer egin beharko litzatekeen norbait eskolan jazarria izaten ari bada.

**KiVa Gurasoen Gida** [hemen](#) duzu eskuragarri.

Iker Gibelalde

Uzturpe Ikastolaren Zuzendaria

